

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Pastak jan eta gero

A

urrean daukat ekainaren 5eko egunkaria. Azalean, izenburu handia, denok ezagutzen duzuen: “Su-eten iraunkorra haustea erabaki du ETAk, gaur gauerditik aurrera”. Barruan, 48. orrian, Zaldieroa-ren zinta, *The Organization* protagonista duena hau ere, “Pastak” izenarekin. Biñeta pareta. Lehenengoan, erakundeko bi lagun ikusten ditugu, beren txano, txapel eta guzti; kafea hartzeko jarritako mahaiaren aurrean daude, atrezzo guztiarekin: kafetera, katiluak, pastak plater batean, eta mahai-zapi guztiz *kitsch* bat; aurrean bi aulki hutsik, eta Asierrek dio: “Deskuidatzen bahaiz ez dittuk gehio etortzen!!!”. Bigarren biñeta lagun bien arteko solasaldiak hartzen du: “Kafea aspaldian hoztu zuan eta txokolatezko pasta guztiak jan dittuk...” jarraitzen du Asierrek; “Jan dizkiagu esan nahiko duk!!” erantzuten dio kideak; “Nik bat edo bi bakarrik”, amaitzen du Asierrek.

Bere absurdoan jeniala zen, Zaldieroa ohiturik gauzkan bezala. Baina anakroniko bihurturik zegoen argitaratu zenerako. Bezperan, marrazkia egitean, Patxi Huartek ez baitzekien berria, guk geuk ere ez genekien bezala. Eta irria izozturik gelditu zitzaigun askori, mahai gaineko kafea baino hotzago eta mikatzago. Mahai bera erakutsi zigun marrazkilaria biharamunean, “Urratsa” izenburupean:



DANI BLANCO

“Asier... / Zer dugu? / Su-etena bertan behera utzi dugu. / Hara. Independentziaren bidean beste urrats bat!!”. Eta amaieran, korolaria: “Kontua da aurrera edo atzera eman ote dugun!”.

Bere bide ustez argitsuan, gero eta etsai gehiago ditu erakundeak, gero eta traidore gehiago topatzen ditu bazterretan. Eta hori, nahi ez badu ere, arazo handia da gerra irabazi nahi duenarentzat, arerioa baino askoz ahulagoa denean batez ere. Beste arazo bat ere badu ordea: ustez ulertu lezaketenganean ere, abertzale eta euskaltzale eta ezkertiar den gizarte-atalean

gero eta gutxiago konprenitzen dela erakundearen logika, gero eta arrotzago eta urrunagoa zaiola haren estrategia, gero eta deserosoagoa eta gaitzesgarriagoa estrategia horren ondorengo jardunbidea.

Horixe baita kontua. Pastak amaitu dira. Orain, beste zerozertara pasatu behar da. Eta hor txisteez ez dute lekurik, ondo asko daki Zaldieroa artista handiak ere. Lehen gauzak oker egonda ere, inork sinesten du amnistia, autodeterminazioa, lurralde-batasuna hurbilago izango ditugula inori auto azpian amosal-opari bat utzita?

Mesedez, Asier: kimizefak *—Quimicefa* jostailua, alegia— utzita, sartu ezazu bizkotxo bat labean. ■

« Bere bide ustez argitsuan, gero eta etsai gehiago ditu erakundeak, gero eta traidore gehiago topatzen ditu bazterretan. Eta hori, nahi ez badu ere, arazo handia da gerra irabazi nahi duenarentzat »

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Zaizkigu bozketak. EH Bai. Datozen egunetan ez dugu zereginik izango, kamisetak saldu besterik ez.

Guretzat bukatu da kanpaina, elkarrekin lan egitea berrekarri diguna aurreko urteetakoa legez. Jende berria ezagutu dugu eta elkar aritzeak on egin digu. Berrikasi dugu alderdietako mugetatik haragoko jardunean ibiltzen, elkarrekiko konfidantza berreskuratzu. Alde horretatik plazer bat izan da. Orain emaitzak aztertu, lan taldeak mantendu eta munizipalitarako presatatu. Izan ere, bozketa hauetan abiatzen gara garaipenik ez dugula erdietsiko jakinik, gure lehiaketa orain artekoa

Joan

hobetzean datzala soilki jakinik. Eta hori lortu dugu. Joan den igandean, Urruñako Berttolin muntatu genuen bozketen jarraipena egiteko kanpamentua. Herrietako berriak jaso eta emaitzek berotzen zizkigun gogoak. Miarritze dugu ezin libratuzko idorre-ria, gure tripako mina, bertan bigarren egoitza dutenen inbasiozko birusa. Horrek ahultzen gaitu bereziki, aurkako sendabiderik ez dugula, etorkizunean irabazleen lehian parte hartzeko aukera egozten diguna. Hori euskal herritartu ezean, lehen itzulira kondenatuta gaude frantses alderdien eremura, turisten eta erretretatuen menpetasunera. Berrindartu gara baina ez dugu aski. ■